



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA
2016/02/09

265 hektarea erre dira Bizkaian urritik izan diran 32 suteetan

Bizkaiko Foru Aldundiak, azken hilebeteetan lurraldeko basoetako izandako suteen balantzea egin dau gaur Batzar Nagusietan. 2015eko urritik “265,65 hektarea” erre dira Bizkaian izandako “32 suteetan” (horreetako 27 abenduan izan ziran). Datu horreek Lucía Isla Nekazaritzako foru zuzendariak emon ditu. Elena Unzueta diputatu andreagaz batera egon da gaur goizean Bizkaiko Batzar Nagusietako Iraunkortasun eta Ingurune Naturaleko batzordearen aurrean agertzeko Batzarretako PP taldeak egin dauen eskariari erantzunez.

Erretako azalera handiena abenduaren bukaerako suteetan izan zan, Berangon, Sopelan eta Urdulizen, joan dan abenduaren 27an, eta hiru egun geroago Bermeon izandakoan. Bien artean “229 hektarea” erre ziran. Suteak handiak izan ziran arren, Islak esan dau kaltetutako azalera “ez dala esanguratsua” izan, Kantaurialdeko kostaldeko beste lurralde batzuek azalderatuta, eta metereologiaren baldintzak kontuan izanda, euri gitxi egin dauen asteak, tenperatura altuak eta haize indartsua.

Lehenengoan, erretako ia azalera osoa –200 hektarea inguru– titulartasun pribadukoa zan, eta bertan gehien egon diran zugatzak eukaliptoak –azaleraren “% 75”– eta pinuak izan dira, bedar, sasi eta arbola orritsuko gune txikietan (arteak, gurbizak, haretxak...) be eragina izan dauen arren.

Sua itzaltzeko beharretan, Iraunkortasun eta Ingurune Naturaleko Sailaren esanetara aritutako “110” pertsona eta Aldundiko “70” suhiltzaile eta euren arduradunak ibili dira. Ganera, Eusko Jaurlaritzako Larrialdietako saileko teknikariak, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioko aireko medioak eta Ertzaintza, Udaltzaingoa, Kurutze Gorriko kideak eta ingurueta boluntarioak be ibili ziran.

Bermeoren kasuan, erretako azalera 29 hektareakoa izan zan, eta eukaliptoetan eta pinuetan izan eban eragina batez be, eta baita bedar, sasi eta arbola orritsuko basoetan be. Islak gogoratu dauenez, kasu horretan Saileko “41” pertsona eta Aldundiko “25” suhiltzaile eta euren arduradunak aritu ziran sua itzaltzeko beharretan, beste batzuen artean.

Zergaitiei jagokenez, Nekazaritzako zuzendariak gogoratu dauenez Ertzaintzak aurrera jarraitzen dau Uribe Kostan izandako sutea dala eta zabaldu ebazan diligentziakaz, “zergaiti naturala baztertuta”, sute hori “gurata eragindakoa” izan zalako. Une honetan Ertzaintza “hainbat hipotesi erabilten ari da”, esan dau. Bermeoko suteari jagokenez, konpainia baten sare elektrikoaren linean izandako “txispa” batek eragin eban, eta konpainia horri zehapeneko espedientea zabaldu jako.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Islak emondako azalpenen ostean, PP taldeko Arturo Aldecoak Karrantza eta Trianoko Mendi inguruetan izandako suteen “kontzentrazioa” azpimarratu dau, eta bere berbetan, sute horreek “sasiak erreten” diralako sortu dira. “Arrisku maila altuko” suteak dira, lurraldeko gune babestuetan gertetan diralako. Ordezkarri popularrak esan dauenez, Aldundiak “kontrolako behar berezia” egin behar dau eukalipto nagusi dan basoen inguruetan, espezie horrek “lurra sikatzen dauelako” eta bere egurra “erraz erreten dalako”. Hori dala eta, zugatz hori dagoan Bizkaiko mendiak “bonba bat” dira.

EH Bildutik kritikau egin dabe Foru Aldundiak zugatzen azalerea berreskuratzeko dauen laguntza eredu. Mikel Kormenzanaren berbetan, koniferoak eta eukaliptoak bertakoak diran haretzak, pagoak edo arteak baino askoz gehiago egotea suteakaz “zuzenean lotuta dago”. Bilduko batzordekidearen berbetan, lurretako “jaube” batzuek “gaiztasunak ditue basoagaz lotutako beste eredu bat aurrera eroateko”, Foru Erakundeak emoten dituan laguntzak kontuan izanda. “Ez bagoaz muinera ez gara sekula helduko suteak prebeniduteko zergaitietara”, esan dau, eta ostean adierazo dau “behar beharrezkoa, preminazkoa eta derrigorrezkoa” dala Mendien ganeko Foru Araua “aztertzea eta barrikustea”. Nekazaritzako zuzendari andreak Bilduko batzordekideak esandakoa onartu dau eta eginbeharreko horretan parte hartzera konbidatu dau.

HONDAKINEN PLANAREN LUZAPEN ADOSTUA

Beste alde batetik, Koalitzino Abertzaleak Elena Unzueta Iraunkortasun eta Ingurune Naturaleko diputatu andrearen agerraldia eskatu dau, Bizkaiko Uri Hondakinen Prebentzino Planari buruzko informazioa emon daian Batzar Nagusietan, eta zehatzago esanez, 2014an Zabalgarbin “erretako” hondakinen “%85” materia “birziklagarria” izatearen zergaitiari buruzko azalpenak emon daizan.

Unzuetak adierazo dau bere sailak 2020. urtera arte “luzatu” gura dauela Bizkaiko Hondakin Solidoen II. Plana, horren indarraldia aurtan bukatzen dan arren, Europako jarraibideei “egokitu” ahal izateko, eta horren ostean azpimarratu dau Zabalgarbik “ez dauela birziklatu daitekezan hondakinen fluxurik jasoten”. “Bigarren mailako” hondakinak –aurretik beste planta batzuetan landutakoak– eta “hondakindegian amaitu behar ez daben urietako fluxu asimilagarriak” energiaren ikuspegitik “balorizetan” ditu.

Unzuetak adierazo dauenez, Bizkaiko Uri Hondakinen Prebentzino Planaren helburu “nagusien” artean, hondakinen sorrerea “1,13 kilogramo/biztanle/egunean mailan eustea”, “urtean 220.000 tona AIMEH-RICIA –urikoakaz asimilatu daitekezan industriako, merkataritzako eta erakundeetako hondakinak– baino gehiago ez sortzea” 2016an, eta ekitaldi honetan “urietako hondakinen 697.000 tona/urtean ez gainditzea” dagoz.

“Gure helburua hondakinak murriztea eta balorizetea, arautegiak zorrotasun osoz betetea, eta ezarrita doguzan helburuetara eta lineatarra heltzea da”, laburbildu dau bere agerraldian. Horretarako, ekitaldi honetan bukatzen dan “PIRSUB deritxonaren luzapen adostuan” behar egiten jarraitzeko proposamena jarri dau mahai ganean, eta horren



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

ostean gonbidapena luzatu deutse batzordeko kideei, Zabalgarbiko instalazinoak bisitatu daiezan “zehatz ezagutu ahal izateko”.

MARIMAR RODRÍGUEZ, BATZORDEKO IDAZKARI BARRIA

Beste alde batetik, saioaren hasieran PSE-EE taldeko Marimar Rodríguez Batzar Nagusietako Iraunkortasun eta Ingurune Naturaleko batzordearen Idazkari aukeratua izan da, aurretik iragarrita egoan moduan Podemos Bizkaiako José Angel Elgezabalek kargua itzi ostean. Batzarretako talde sozialistaren ordezkariak EAJ-PNV eta PSE-EE taldeetako ordezkarien aldeko botoa lortu dau, eta ganerako batzordekideek boto zuria emon dabe.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

09/02/2016

265 hectáreas quemadas en Bizkaia en los 32 incendios declarados desde octubre

La Diputación foral de Bizkaia ha hecho, hoy, en las Juntas Generales un balance de los incendios forestales producidos en el territorio en los últimos meses. Desde octubre de 2015, un total de “265,65 hectáreas” ardieron en Bizkaia en los “32 incendios” declarados (27 de ellos en diciembre). Estos datos han sido ofrecidos por la directora foral de Agricultura, Lucía Isla, quien ha acompañado esta mañana a la diputada Elena Unzueta en su comparecencia ante la comisión de Sostenibilidad y Medio Natural de la Cámara vizcaína solicitada por el grupo juntero del PP.

La mayoría de la superficie calcinada se concentró en los incendios de finales de diciembre, concretamente en los localizados en terrenos de Berango, Sopela y Urduliz , el pasado 27 de diciembre, y, posteriormente en el registrado en Bermeo tres días después. Entre los dos, llegaron a arder “229 hectáreas”. Pese a la virulencia de los siniestros, Isla ha señalado que la superficie afectada “no ha sido significativa” en comparación con otras regiones de la cornisa cantábrica y teniendo en cuenta las condiciones meteorológicas, con semanas de pocas precipitaciones, temperaturas altas y mucho viento.

En el primero, prácticamente toda la superficie carbonizada –unas 200 hectáreas- era de titularidad privada y, en ella, predominaban las masas de eucalipto –un “75%” de la superficie- y los pinos, aunque también afectó a terrenos cubiertos de pastizal, matorral y pequeños bosquetes de frondosas (encinares, madroñales, robles...).

En las labores de extinción de este fuego trabajaron “110” personas dependientes del Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural y “70” bomberos de la Diputación y sus mandos correspondientes. Además, el siniestro movilizó a técnicos de Emergencias del Gobierno Vasco, a medios aéreos del Ministerio de Agricultura, Alimentación y Medio Ambiente, y a dotaciones de la Ertzaintza, Policía Local, miembros de Cruz Roja y voluntarios locales.

En el caso de Bermeo, la superficie quemada fue de 29 hectáreas y afectó principalmente a eucaliptos y pinos, y también a terrenos cubiertos de pastizal, matorral y bosquetes de frondosas. En este caso, Isla ha recordado que trabajaron en la extinción del fuego “41” personas del Departamento y “25” bomberos forales y sus mandos, entre otros efectivos.

En cuanto a las causas, la directora de Agricultura ha recordado que la Ertzaintza continúa con las diligencias abiertas por el incendio decretado en Uribe Kosta, ya que el mismo, “descartada la causa natural”, fue “intencionado” . En estos momentos, la



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Ertzaintza “baraja varias hipótesis”, ha dicho. Respecto al incendio de Bermeo, este fue producido por una “chispa” de una línea de la red eléctrica de una compañía a la que se le ha abierto un expediente sancionador.

Tras las explicaciones de Isla, Arturo Aldecoa, del PP, ha puesto el foco en la “concentración” de fuegos en áreas de Karrantza y de los Montes de Triano, debido – según él- a la “quema de pastizales”. Son incendios con un “elevado riesgo”, ya que se producen en áreas protegidas del territorio. El representante popular se ha referido también a que la Diputación debe realizar una “especial labor de control” en las áreas arbóreas donde predomine el eucalipto, ya que esta especie “re seca la tierra” y su madera “arde con facilidad”, lo que supone “una bomba” para los montes vizcaínos en donde tiene presencia.

Desde EH Bildu, han criticado el modelo de ayudas de la Diputación para recuperar superficie arbórea. La proliferación de coníferas y eucaliptos, frente a especies autóctonas como robles, hayas o encinas, tiene según Mikel Kormenzana una “relación directa” con los incendios. Según el apoderado de Bildu, hay “propietarios” de terrenos que están teniendo “dificultades para desarrollar otro modelo” forestal en base a las ayudas que otorga la institución foral. “Si no vamos al fondo, no iremos a las causas de la prevención de los incendios”, ha dicho, para, a continuación, señalar que es “indispensable, urgente y necesario” hacer una “revisión” de la Norma Foral de Montes. La director de Agricultura ha recogido el guante y le ha animado en participar en esta tarea.

PRÓRROGA CONSENSUADA DEL PLAN DE RESIDUOS

Por otro lado, la coalición abertzale había pedido la comparecencia de la diputada de Sostenibilidad y Medio Natural , Elena Unzueta, para que informase en Juntas Generales del Plan de Prevención de Residuos Urbanos de Bizkaia y, en concreto, de por qué el “85%” de los residuos "incinerados" por Zabalgarbi en 2014 eran materia “reciclable”.

Tras confirmar que su departamento continúa con la idea de “prorrogar” hasta el año 2020 el II Plan de Residuos Sólidos de Bizkaia cuya vigencia termina este mismo año, para “adecuarnos” a las directrices europeas, Unzueta ha señalado que Zabalgarbi “no recibe flujos de residuos reciclables”. “Valoriza” energéticamente los residuos "secundarios" –ya tratados previamente en otras plantas- y "flujos urbanos asimilables que no deben acabar en vertedero”.

Unzueta ha señalado que entre los objetivos “principales” del Plan de Prevención de Residuos Urbanos de Bizkaia, se encuentra el “mantener en 1,13 kilogramo/habitante/día” la generación de residuos, “no superar las 220.00 toneladas/año de generación de RICIA” - residuos industriales, comerciales e



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

institucionales asimilables a urbanos - en 2016 y “no superar las 697.000 toneladas/año de residuos urbanos” en este ejercicio.

“Nuestro objetivo pasa por una minimización y por una valorización de los residuos; por el estricto cumplimiento de las normativas; y por llegar a los objetivos y líneas que tenemos establecidas”, ha resumido en su comparecencia. Para ello, ha puesto sobre la mesa la propuesta de ir trabajando en una “prórroga consensuada del PIRSUB” que concluye este ejercicio, para después lanzar una invitación a los miembros de la comisión a cursar una visita a las instalaciones de Zabalgardi “para conocerlas en detalle”.

MARIMAR RODRÍGUEZ, NUEVA SECRETARIA DE LA COMISIÓN

Por otra parte, Marimar Rodríguez, del PSE-EE, ha sido elegida al inicio de la sesión Secretaria de la comisión de Sostenibilidad y Medio Natural tras la renuncia, ya anunciada, de José Angel Elgezabal, de Podemos Bizkaia. La representante del grupo juntero socialista ha conseguido el apoyo de los representantes de PNV y PSE-EE, mientras que el resto de apoderados ha votado en blanco.